

ZUMARRAGA / 'Liburuen parkea' ireki dute Zelai Ariztin, liburutegiaren osagarri bezala

Liburuak maileguan hartu eta aldizkariak bertan irakurri ahal izango dira; jolasteko aukera ere egongo da.

Idoia Luzuriaga. Zumarraga.

Igerilekuan atzotik ' bibliopiszina ' zabalik

Atzotik uztailaren 24ra bitartean Zumarragako Liburutegiak osagarria izango du Zelai Arizti parkean: Liburuen Parkea deitutako txokoa. Espazio berri hori herritar gazteenentzat pentsatuta dago batez ere. Haurretzako liburuak aterako dituzte bibliotekatik parkera. Helburuak irakurtzeko zaletasuna bultzatzea eta udan ere liburutegiaren erabilpena sustatzea dira, bertako arduradunen arabera.

Eskaintza zabaldu

Iaz liburutegia lekuz aldatu zutelako irakurleak zerbitzurik gabe gelditu ziren udan. Baina aurte hutsune hura estaliko dute, eta osagarria ere gehitu diote.

Liburutegi berria ireki zenetik eskaintza zabaldu ahal izan dugu, diote Zelai Ariztiko arduradunek. Udan ekimen hau eta urte osoan zehar irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina abian dira.

Gune horretan aulkiak eta mahaiak jarri dituzte, baita liburuentzako apalak ere. Gainera, aldizkariak eta egunkariak egunero eskainiko dituzte, batez ere zortzi urtetik beherako haurrekin doazenentzat; haurrek heldu batekin egon beharko dute. Haurrekin datozenek parkean irakurtzeko aukera izango dute, txikiak bertan daudela.

Begiraleak

Liburuen Parkean bi begirale egongo dira, eta haurrentzat arreta berezia jarriko dute; hala nola liburuak irakurtzen, margotzeko materiala ematen, mahai jolasak egiten lagunduko diete. Izan ere, irakurzaletasuna gune desberdin batean bultzatu nahi da, uda garaian aisialdiarekin bat eginez. Horretarako parkea gune egokia iruditzen zaigu, diote aurten estreinakoz Liburuen Parkea sortu dutenek.

Liburuak maileguan hartu ahal izango dira. Sistema bera izango du, txartela erakutsi eta liburuak eraman. Hala ere, ohiko liburutegiak ere zerbitzua emango du.

Goizero parkean

Liburuen Parkea goizero irekiko dute, 11:30etik 13:30era. Atzo zuen lehenbiziko eguna, eta haur ugari gerturatu zen. Gehienek margotzen eta mahai-jokoekin jolasten igaro zuten goiza. Momentuz maileguan ez dituzte liburu gehiegi hartu. Etorri, mahaian jarri eta margotzen edo jolasten hasi dira gehienak. Gustura daude, eta gu ere bai, zioen begirale batek.

Udan ere txartelak egingo dituzte, eta zerbitzuak normaltasun osoan funtzionatuko du. Baina txartel berriak egiteko liburutegira joan beharko dute interesatuek. Era berean, ikus-entzunezko materiala ere kultur etxeko liburutegian dago. Zerbitzu hori uztailean arratsaldez itxita egongo da. Urtarrilean hasitako eta urte osorako martxan egongo den irakurzaletasuna bultzatzeko kanpainari irailan ekingo diote berriz. Ekimenak arrakasta handia izan du, oso gustura gaude. Tokiak mugatuak dira, eta bete egin dira. Udako etenaren ondoren irailaren 25ean hasiko gara berriro kanpainarekin, eta egun horretako saioan txotxongiloak izango dira. Ipuin kontalaria, idazketa saioak eta ilustrazio tailerrak osatuko dute aurtengo eskaintza.

Igerilekuan atzotik ' bibliopiszina ' zabalik

Goizean parkean eta arratsaldean igerilekuan irakurri ahal izango da. Izan ere, atzo igerilekuan ere liburuen txokoa ireki zuten, dagoeneko ezaguna den Bibliopiszina. Ekimen hori ez da berria, 2001ean jarri baitzuten martxan, eta udaro izan du harrera ona, kasu horretan eguraldiak asko baldintzatzen badu ere, duen kokapenagatik. Zerbitzua 15:30ean ireki eta 20:00ak arte egongo da zabalik, egunero, uztailaren 27ra arte. Liburuak, aldizkariak eta jokoak hartu ahal izango dira maileguan, beti ere igerilekuan irakurri edo erabiltzeko. Nahikoa izango da igerilekuko karneta aurkeztea, baina karneta eduki ezean Nortasun Agiria erakutsita ere hartu ahalko dira. Liburuei dagokienez, adin guztietarako eskaintza zabala jarri dute, gaztetxoei zuzendutako argitalpen bereziak ere bai tartean.